

# Denbora.

## 2 Itzalak

Txirrindularitzari erreparatzen al diozu? Txirrindulariak ezagutzen al dituzu? Hizki hauek ordena egokian jartzen badituzu, lau txirrindulariren izenak aterako zaizkizu. Zein dira txirrindulariak?

YOAM

KiBOEL

LiSAKEA

PARREDA

## 3 Buruketak

Batuketa, kenketa, biderketa... Gustuko al dituzu matematikak? Hala bada, hasi eragiketa hauek egiten. Ea emaitza egokia lortzen duzun.

$$1+8+6:3 \times 4-2 = \square$$

$$6+1-5+3 \times 8-4+2 = \square$$

$$3+1-2 \times 7+3-4 \times 2 = \square$$

$$3 \times 7+6-4-3+1:7 = \square$$

Erantzunak: 2.- Mayo, Beloki, Laiseka eta Pradera. 3.- 18, 36, 38 eta 3. 4.- 1 eta 5. 5.- F. 6.- 1 eta 6.


## Deabrua

Deabruaren panpina bat edukitzea gustatuko al litzaizuke? Jarraitu argibide hauei pausoz pauso, eta zure deabrutxoia izango duzu. Eredu berari jarraituz, beste hainbat panpina ere egin ditzakezu.



### Beharrezko materiala

- Egunkari papera.
- Paper ore.
- Kola.
- Mastika.
- Margó gorria, zuria eta beltza.
- Pintzelak.
- Kartoi mehe laranja.
- Feldro gorria.
- Eztainu papera.
- Paperezko zinta eranskorra.
- Guraizeak.
- Orratza.
- Hari beltza.
- Barrako kola.
- Arkatz markatzailea.




1 Egunkariaren paperekin bola bat egin, deabruaren burua egiteko. Bolatxoa egin eta gero, kartoi mehea hartu, eta zilindro bat egin. Zinta eranskoraren laguntzarekin, paperezko bolatxoa eta kartoi mehea itsatsi.

### Egiteko modua



2 Egunkari zatiekin, bolatxoa estaliko dugu. Egunkari zatiak kolarekin itsatsiko ditugu.



3 Deabruaren sudurra eta adarrak paper orearekin irudikatuko ditugu. Moldatu ostean, mastika orearekin estaliko dugu buru osoa.



# -pasa

## 4 Sarrailak

Inaxiok itsulapikoko bi giltza ditu.


Oharkabeen, gainerako giltza guztiakin nahasi ditu. Giltza sorta honi ongi begiratu, eta bi berdinak direla ohartuko zara. **Horratx Inaxiok bilatzen dituen giltzak!**



## 5 Itzalak


Eskola hasterako, koaderno gorri bat erosi zuen Leirek. **Asmatuko al zenuke itzal**

hauetatik Leireren koadernoari zein dagokion?




## 6 Bikiak

Mikelek eta Jokinek, etxeko lanak egiteko, lanpara berdina erosi dute. **Irudiei begiratuta, asmatuko al zenuke zein den erosi duten lanpara?**



**4** Deabruaren burua gorriz margotuko dugu. Pintura zuria eta beltza, berriz, begiak eta ahoa egiteko erabiliko ditugu.



**7** Kartoi mehe laranja sugarrak marraztu eta moztuko ditugu. Sugarrak jantziaren beheko aldean itsatsiko ditugu, barrako kolarekin.



**10** Egunkarien paperekin eta zinta eranskorrekin, deabruaren hiruhortza sortuko dugu.



**5** Panpina erdi egina dauka. Hurrengo pausoa, deabruari jantzia egitea izango da. Feldro gorria hartu, eta marraztu deabruaren jantzia. Moztu marraztutako jantzia.



**8** Paper orearekin, deabruaren besoak moldatuko ditugu.



**11** Hiruhortza eztainu paperarekin estaliko dugu.



**6** Orratza eta hari beltza hartu, eta jantziaren ertzak josi. Baina ez dena josi, gero! Burua, besoak eta oinak sartu ahal izateko, irekita utzi jantziaren alde horiek.



**9** Besoak, ongi lehortzen direnean, gorriz margotuko ditugu.



**12** Deabruaren burua eta besoak jantziari itsasteko, kola erabiliko dugu. Deabruaren hiruhortza sartzeko, jantziari ebaki txiki bat egin beharko dio. Amaitu dugu gure deabrua!